



SODIO KOLISTIMETATOA (PROMIXIN®) MILIOI BAT UNITATE (MUI)

ZERTARAKO ERABILTZEN DA?

Antibiotiko bat da, eta *Pseudomona aeruginosak* eragindako infekzioari aurre egiteko erabiltzen da.

NOLA GORDE:

Gorde GIROKO TENPERATURAN (25 °C baino gutxiago), ontziaren barruan.

NOLA HARTU:

Inhalatu egiten da, I-NEB gailua erabiliz. Erizainak esango dizu nola lortu I-NEB gailua eta nola hartu medikamentua, eta behar duzun materiala emango dizu.

Ohiko dosia 1 MUI-koa da, 12 orduan behin.

Beste medikamentu batzuk inhalatu behar badituzu, gogoratu Promixin azkena hartu behar duzula.

ETA DOSI BAT AHAZTU BADUT?

Dosi bat hartzea ahaztu baduzu, gogoratu bezain laster inhalatu behar duzu, baldin eta hurrengo dosia berehala hartu behar ez baduzu.

Noiz berrikusia: 2017ko abuztuan

GERTA DAITEZKEEN AURKAKO ONDORIOAK:

- Zorabioak, nahasmendua, lauso ikustea.
- Gogortzea edo inurridura nabaritzea.
- Eztul lehorra.
- Ezohikoa da erreakzio alergikoak eragitea. Larruazaleko erupzioa agertzen bazaizu, esan medikuari.

NEURRI BEREZIAK:



Miastenia larririk baldin baduzu (giharretako gaixotasun arraro bat), esan medikuari.



Adierazi medikuari eta farmazialariari zer medikamentu hartzen ari zaren, bereziki antibiotikorik hartzen ari bazara.

Ebakuntzarik egin behar badizute, esan egin behar duzu.



Ez hartu medikamentu hau haurdun bazaude edo bularra ematen baduzu.



Medikuak egiaztatuko du giltzurrunak *nola funtzionatzen duen* tratamendua egin aurretik eta bitartean.



Zorabioa, nahasmendua edo lauso ikustea eragin badizu, ez gidatu eta ez erabili makina arriskutsurik.

IO-FARMAZIA-02